


Gero eta gazte gehiago dago gizenegi EAEn

Obesitate-mailari dagokion Gorputz Masaren Indizea duten 16 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa %2,2tik %3,9ra igo da 2002tik 2007ra, EAEn.

Nutrizioaren Egun Nazionalaren hamargarren urteurrena dela-eta, EAEko 16 eta 24 urte bitarteko biztanleen elikadura-azturei eta gizentasunari buruzko datu batzuk emango ditu jarraian [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Datuok Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak 2007an kaleratutako *EAEko Osasun Inkestakoak* ([EAEOI](#)) dira.

EAEko Osasun Inkestak **obesitate**z josten duen Gorputz Masaren Indizeari buruz (30etik gorakoa) ematen dituen datuen arabera, gizenegi dauden gazteen ehunekoa %2,2tik %3,9ra igo da 2002tik 2007ra. Euskadiko gazteak Espainiakoen (%2,6) eta Europakoen (%3,3) gainetik kokatzen ditu balio horrek, [Eurostatek](#) argitaratutako datuei jarraiki.



Ikerlan horrek fruta-, barazki-, okel-, arrain- eta gozoki-kontsumoari buruzko hainbat datu ere ematen ditu, 16 eta 24 urte bitartekoei gagozkiela.

- %45,4k fruta jaten dute egunero; %11k ez dute frutarik hartzen inoiz edo ia inoiz ez.
- %51k egunero edo astean hirutan baino gehiagotan barazkiak jaten dituzte; %5ek ez dute inoiz edo ia inoiz horrelakorik jaten.

- Okel-kontsumoa garaia da gazteen artean; izan ere, %73k egunero hartzen dute okela, edo astean hirutan baino gehiagotan.
- %53k arraina jaten dute astean behin, gutxienez; %4k ez dute arrainik inoiz edo ia inoiz jaten.
- %83k egunero edo astean zenbait aldiz jaten dituzte gozokiak eta opilak. Horietako %38k egunero jaten ditu; %25ek astean hirutan edo gehiagotan; eta %20k astean behin edo bitan.

Bizimodu osasungarriaren hirugarren alderdia **ariketa fisikoa** da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kirol Zuzendaritzak egindako [*Kirol-ohituren inkesta EAEn 2008*](#) ikerlanaren arabera, EAEn bizi diren 15 eta 25 urte bitarteko gazteen %45ek jarduera fisikoren bat gauzatzen dute astean hirutan edo gehiagotan. Ehuneko hori biztanleria osoarenaren halako bi da (%22).